

Partaidetza

Komunitatea egitea da

Gurea
Aretoko
ikuskitzen
zerrenda
barne



Derio
Udaleko Aldizkaria



Azaleko argazkia:
OEJ Ibilbidea, Etxebarri
Baserria
(Egilea: DerioKOMunikazioa)

- 02 Editoriala
- 03 Opera tratu txarren aurka
- 04 Topa Eguna
- 05 Aikor! Babes bila
- 05 Errigora proiektua
- 06 Andre baserriarren jaiak
- 07 Ibilbidea baserri zaharretatik
- 08 Errepide zaharra irekitzea
- 08 Txokoaren erabilera
- 09 Halloween ludotekak
- 09 CemenDerioRock hurbiltzen ari da
- 10 Kiroldegia jomugan
- 11 TA21: eraikinen foro arrakastatsua
- 12 Txapela buruan: Kaiku Valentzian
- 14 Udazken literario paregabek
- 15 Garitano, Ligako saridun
- 15 Gure Señeak egutegia

Beharrezko telefonoak

DERIOKO UDALA	944 541 019
AYUNTAMIENTO	FAX 944 542 832
UDALTAINGOIA - POLICIA MUNICIPAL	944 543 725
SERVICIOS SOCIALES	944 542 243
SUHILTZAILEAK - BOMBEROS	946 555 337
KULTUR BIRIKA	944 659 714
GARBIGUNE	944 034 090
HERRI IKASTETXEA - ESCUELA	944 541 246
UDALSAREAK - AVERIAS DE AGUAS	944 873 187
BEHARGINTZA TXORIERRI	944 540 370
INSTITUTUA - INSTITUTO	944 543 258
EUSKALTEGIA	944 540 062
MANKOMUNITATEA	944 540 350
KIROLDEGIA - POLIDEPORTIVO	944 540 159
GAZTELEKU	944 540 469
BIBLIOTEKA	944 540 210
NAGUSIEN ETXEA	944 540 763
AEK	944 543 967
KZ GUNEA	944 033 335
OSASUN ZENTROA - CENTRO DE SALUD	944 543 004
TAXI DERIO	944 800 909

BEITU ALDIZKARIA

beitu@deriokoudala.net

Legezko Gordailua: BI-1377-04I

Inprimatzea: Graficas Mungia

EDITORIALA

PARTAIDETZA

nor ezin du ukatu gure herria paterhartzailea dela, eta azken asteak horren adibide izan dira. Foroak, ibilbideak, topaketak, manifestazioak... Beti dago bat egiteko aukera, eta bat egite horrek indartsuago egiten du zorionez kide garen komunitatea. Ehunka bertaratu ziren Topa Eguna; Tokiko Agenda 21ek duela gutxi etxebizitzetara buruz eginiko foroak berrogeita hamar lagun inguru bildu zituen, informazioa jasotzeko eta eztabaidatzeko interesa zutenak; beste berrogeita hamar bat pertsonak ibilbide gidatua egin zuten Ondarearen Europako Jardunaldien esparruan; eta berrogeita hamar gizon eta emakumek baino gehiagok egin behar dute manifestazioa azaroaren 25ean, etxeko tratu txarren aurka.

Auzotarrek, lagunak eta senideek beti lagundu diote elkarri, beti izan dira solidario. Garaiak aldatu dira, baita formak ere, eta gaur egungo partaidetzaren formatuak ezberdinak dira, baita sarekoak ere; gero eta maizago eta ia konturatu gabe jotzen dugu bertara, lehen inguruko ateetan topatzen genituen erantzunen eta laguntzaren bila. Ez diogu ondoko aldabari jotzeari utzi behar, nahiz eta aldi berean Whatsapp bat bidali; orobat, plazan edo Kultur Birikan edo Larrabarri edo sareko foro batean bildu behar dugu, aldi berean. Finean, parte hartzea da garrantzitsuenak.

OPERA TRATU TXARREN AURKA

‘Tutte contro Verdi’ obra, azaroaren 25eko ekitaldi nabarmena

Udala gure emkumezko herritarren alde jarri da eta emakumeengako indarkeriaren aurka, Emakumeengako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta. Azaroaren 25ean ziango da, eta ekimntza ugari antolatuko dira. Halatan, Gurea Aretoan “Tutte contro Verdi” opera-performancea izango du, ekitaldi nagusi gisa, ostiralean (hilak 28), arratsaldeko zazpi eta erdietan. Ekitaldi horri, herritarren babes-ekintza gisa, indarkeria gaitzesteko manifestazioa eta Kultur Birikako hitzaldia gehitu behar zaizkio.

Miren de Miguelek, familia derioztarra duen sopranoak, berak sortu duen “Tutte contro Verdi” opera estreinatuko du Gurea aretoan. Abeslariak italiar unibertsal horrek konposatutako zenbait aria interpretatuko ditu. Horieta “emakumeen patua, dela gaixotasun bat dela hirugarren baten esku, zorigaitzokoa izten da”. Hala, obraren ardatza dira autorearen ariak interpretatzean bere buruarekin dituen gatazkak; izan ere, aria horietan emakumea baztertu egiten da eta tratu txarrak jasaten ditu.

Hitzaldia eta manifestazioa

Azaroaren 25erako (astarte), Sutondoanek, erkidegoko poliziarekin batera, “Ertzaintza eta genero-indarkeria” hitzaldia antolatu du. Interesdunak Kultur Birikara

Hitzaldia KBn: Ertzaintza eta genero indarkeria



EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIAI EZ
NO A LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES

joan daitezke, lau eta erdietatik aurrera. Elkartekok adierazi dute hitzaldian indarkeria sexistaren aurrean agenteek erabiltzen duten protokoloaren berri emango dutela. Hitzaldiaren ostean, zazpi eta erdietan, manifestazioari emango zaio hasiera San Isidro elizan. Udaletxean amaituko da eta bertan gaitzespen-adierazpena irakurriko da.

Azaroaren 25ean ospatzen da Emakumeengako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna Udalak eta Sutondoanek hainbat ekinntza antolatu dituzte, besteak beste, opera bitxi bat eta gaitzespen-manifestazioa. Etxeko andreen elkartek, halaber, hitzaldi bat antolatuko du, Ertzaintzarekin lankidetzan.

EUSKALTZALEEN JAIA

Topa Egunaren hirugarren edizioa Derion egin zen

Derio izan zen euskaltzaleen jaiaren aurtengo eszenatokia. Topa Egunak Euskal Herri osoko jendea bildu zuen gure herrian, egun osoan zehar. Bertan, euskara eta gure kultura sustatzen duten elkarteen aldeko leloa argia izan zen. Tximintx arduratu zen hitzordu berezia antolatzeaz, eta jarduera ugari egin ziren egun osoan.

Egunari hasiera emateko, oso ekitaldi hunkigarria egin zen. Goiz erdian, “Zure ustez, nolakoa izango da euskararen egoera hamabost urte barru?” galdera egin ondoren, bertaratutakoek euren ametsak idatzi zituzten, eta kutxa batean sartu zituzten guztiak. Ondoren, gainera, El inmigrante eskulturaren ondoan lurperatu zen kutxa. Kutxa hori hamabost urte barru irekiko da, eta jakingo dugu parte hartu zutenen ametsak bete ote diren.



Ekitaldi hunkigarri hori bukatutakoan, kalejira hasi zen, pertsonaia alaiekin. Bertan, gazteenek Umeguneaz gozatu ahal izan zuten jarduera askorekin. Halaber, hilerria zehar egindako txangoak eta Dinbi Bandaren batukada ozenak jende asko erakarri zuten oinezkoentzako eremura. Ondoren, herri-bazkaria egin zen frontoian; 200tik gora mahaikide bildu ziren eta bertsolari batzuek girotu zuten bazkalondoa. Azkenik, musikarekin amaitu zen eguna, Gibelurdinek eta Dinbi Banda taldeei esker.

Pozik

Tximintxeko kideak pozik daude bertaratutako lagun-kopuruagatik eta eginiko jardueren aniztasunagatik. Hala ere, azpimarratu dute ezin dela Topa Egunaren aurreko edizioekin alderatu; izan ere, hirugarrena dela alde batera utzita, herri bakoitzean oso jarduera ezberdinak egin ziren. Hemen, zenbait dinamika tartekatuta ziren, bertaratutako guztien nahie erantzuteko. Hartara, Deriok Lasarteri eman dio lekukoa, bertan antolatuko baita Topa Eguna 2015.



Hurrengo Topa Eguna Lasarten izango da

AIKOR FINANTZAKETA BILA

Aldizkari euskaldunak Aikor Lagun kanpaina abiarazi du

Aikor euskarazko erreferentziazko aldizkaria da Txorierrin duela hamahiru urtetik, eta orain 'Aikor Lagun' kanpaina bultzatzen ari da herritarren elkarlan eta laguntza handiago lortzeko eta, hala, komunikabidea izaten ari den diru-sarreraren galerak arintzeko.

Krisia hasi zenetik, gutxitu egin da aldizkariaren diru-iturri nagusietako bat: inguruko merkatarien publizitatea. Oraindik baditu beste laguntza batzuk, besteak beste, erakunde batzuen diru-laguntzak edo zenbait bazkideren ekarpena; baina, publizitatea da komunikabidea finantzatzeko oinarririk sendoena.

Orain arte, Aikor-ek aurreko Zamudioko "Lagatzu Eguna"-n bildutako dirua izan du, bai eta beste ekintza batzuekin lortutako

diru-sarrerak ere, adibidez Larrabetzuko, Goitioltzako eta Sondikako jaietan txosnetan saldutako edalontziekin lortutakoa. Horrez gain, urriaren 24an Gaizka Peñafielek eginiko "Aikor Lagun 2014" bideoa argitaratu zen, eta bertan ikus daiteke taldeak eginiko lana eta jendearen babesa; izan ere, beharrezkoa da txorierritar guztien laguntza.

Sortu zenetik, hau da, orain dela hamahiru urtetik, Aikor-ek lau ardatzen inguruan egin du lan: Txorierrin gure hizkuntza sustatzea, egiazko informazioa eta gertuko eskaintzea, euskaltzaleen arteko sarea ehuntzea eta, azkenik, gaztelaniadunak euskararen mundura gerturatzea.



ERRIGORA OTZARAK NAFARROATIK

Tximintxek gustu onez hurbiltzen digu euskararen aldeko dinamika bat

Errigoraren udazkeneko kainpaina (Nafarroako euskara eta nekazaritza bultzatzeko kanpaina) Tximintxen eskutik heldu da gure herrira. Herri-ekimen horretan honako hauek parte hartzen dute: Zazpiak Bat, AEK, ikastolak eta Sortzen. Gure hizkuntzak Nafarroaren hegoaldean bizi duen egoera aldatzeko eta nekazaritzaren alde egiteko, tokiko hainbat produktu biltzen dituzten otzarak eskaintzen dira, merkatuko prezio errealean: 50 euro. Boluntarioen lanari eta ahaletinari esker, bildutakoaren % 25 euskara



Kanpaina hil honen 12an amaituko da.

bultzatzera bideratzen da. Bada, aurten irabazi hori Erriberako ikastolei eta AEK-ko euskaltegiei emango zaie, baita Euskaraz bizi proiektuari eta Ikasi Hamarratzi ere. Parte hartzeko, nahiko da eskaera betetzea eta hil honen 12a baino lehen Kultur Birikako postontzian uztea.

EMAKUME BASERRITARRAK, BELAUNALDIETAKO BENETAKO SINBOLOAK

Memorian betiko geldituko den ondarea

Urriaren 15a, Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna izanik, omenaldia egin zitzaion bigarren urtez jarraian Derioko emakume baserritarren lanari. Esperientzia errepikatzeko gogoia zuten emakume horiek eta, hala, Kultur Birikara gerturatu ziren, familiakideek harro lagunduta. Udalak antolatutako ekitaldi horretan, eurei buruzko liburuak eman zizkieten: Fernando Pedro Pérezen Derioko azken andra baserritarrak. “Argitalpen honen bidez asmoa da emakume baserritarren sakrifizioari omenaldia egitea eta, hala, betiko gogoratu ahal izatea”, nabarmendu du Maite Bolumburu Berdintasun zinegotziak eta argitalpenaren sustatzaileak. Halaber, ekitaldian aipamen berezia egin zitzairen liburuan agertzen diren baina liburuak ikusteko aukerarik izan ez dutenei.

Liburuaren aurkezpena eta argazki-erakusketa dela eta, ehun pertsona inguru bildu ziren, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritzako zuzendari Ikerne Zuloagarekin batera. Erakusketan, protagonisten eguneroko irudiak ikusi ahal izan zituzten, inguruko baserrietan. Halaber, ohiko baserri bateko giroa islatu zen txoko batean, lanabes nahiz tresna eta guzti.

Maitek, ekimenaren arduradunak, aitortu du protagonistekin identifikatua sentitzen dela, sentimendu, bizipen eta pasadizo berdinak bizi



Baserriz baserri eginiko liburuak.

baitzituen Inés amarekin, Ezkertza baserrian. Horrez gain, eskertu egin nahi du emakume horien guztien laguntza, eta ziurtatu du gogoan duela hurrengo urteko hitzordua, sorpresaz beterik egongo dena.



LIBURU BAT

Derioko azken andra baserritarrak da Fernando Pedro Pérez egileak hautatu duen izenburua. Bertan, 58 elkarrizketa bildu ditu, protagonistek zuzenean kontatutako istorioak. Egile eta diseinatzaile grafikoak nabarmendu duenez, “liburuaren xedea da emakume baserritar horiek memoriatik berreskuratzea eta omenaldia egitea, euren bizitza eman baitute udalerrri honek gaur egun duen oparotasuna lantzeko”.

IBILALDIAK GARAI BATEKO BASERRIETAN

Ondarearen Jardunaldiak, arrakastatsuak izan direnez, errepikatu egingo dira

Hilaren 9an, igandean, errepikatu egingo da Ondarearen Europako Jardunaldiak direla-eta Derioko baserri enblematikoenetan eginiko ibilaldi gidatua. Gure iraganarekin urtero dugun hitzordu hori errepikatu egingo da, jende askok eman duelako izena (aldez aurretik egin zuten, eta irekita zegoen Bizkai osoko jendearentzat), txangoa egin eta gure baserrien historia ezagutzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen du topaketa urtero, Udalarekin eta DerioKOMunikazioarekin batera. Aldundiak jarri zuen gaia, baserriak alegia, eta hitzaldi baten bidez garatu da, baita hainbat baserrian (Lobagaerdiko, Etxebarri edo Islabe) eginiko ibilbide gidatu baten bidez ere. Bada gehigarri bat, dena den: komentuan gaur egun bizi diren moja klaratarrekin eginiko bisita eta solasaldia.

Laugarren edizioa

Aurtengoa Deriok Jardunaldi horiekin bat egiten duen laugarren urtea izan da. Jardunaldi horietan, Bilboko hilerriak, elizak, Errege Bidea, eraldatutako ondarea eta, azkenik, baserriak aztertu ditugu. Topaketa bakoitzak parte-harztean du, Bizkaiko edozein herritako jendea erakarri du; baina, zalantzarik gabe, baserriaren ingurukoa izan da txalokatuena.

Joan den mendean bizilagun ugari izan zituzten baserrien aztarna gutxi ditugu herrian; izan ere, denborak aurrera egin ahala, eraikin horiek aldatu egin dira. Baina, hemen



eraiki ziren, hauek dira euren harriak eta hau da gure arbasoek landu zuten lurra. Historia asko dago fatxadetan eta atarrietan, habe eta lanabesetan.

BERRIZ IREKI DUTE BILBORAKO ERREPIDE ZAHARRA

Bideak jarraitzen du nahastea sortzen, seinaleak direla eta

txura berria du garai batean Bilbora Artxandatik joateko errepide nagusia zenak. Azken hilabeteotan, errepidea egokitzeko eta zabaltzeko lanak egin dira, batik bat Bizkaia ikastetxearen ondoko sarreran. Hobekuntza handia egin da, eskola-autobus ugari igarotzen baitira; baina, hala ere,, arazo asko ez dira konpondu. Horieta nabarmenena seinale okerrak dira oraindik ere; izan ere, horien arabera, errepide hori da Deriora joateko bide bakarra. Bere garaian, seinalea arrazoizkoa zen, Galbarriatura, Santimami auzora eta



bidegurutze jendetsu horretara joateko sarbide zuzenena baitzen. Duela zenbait urte eginiko ebaketak, dena den, bidegurutzearen ondoko trenbideko pasagunea kentzea ekarri zuen, eta beraz, ezin da bertatik joan herrira. Horren ondorioz, gidariek ia 3 kilometroko saihesbidea hartu behar dute, pabilioien artean. Errepide-seinalea indarrean egotea ez da aitzakia ondoan beste bat ez jartzeko eta adierazteko autobia erabil daitekeela Deriora modu zuzen eta seguruagoan joateko.

TXOKOA DENAK EMANDA

Harrera ona lehen hilabetearen ostean

Doneztebe Ingurumen Aretoak irailean ireki zizkion ateak herriari. Ordura arte, San Esteban jaietan besterik ez zen erabili, noizean behin. Udazkenetik aurrera, aldiz, urte osoan erabili da txoko gisa, egutegian nabarmendutako Gabonetako oporraldia alde batera utzita.

Erraza da lokala erreserbatzea. Zerrenda-hurrenkerari zorrotz jarraituta, interesdunek, asko jota, hilabeteo aurrerapenez eman dezakete izena. Horretarako, ehun euro emango dituzte erabili eta garbiketa-lanak egiteko; berrogeita hamar euroko fidantza ere utzi beharko da, eta itzuli egingo da instalazioa berrikusi ondoren.



Ekipamendu horretara, gehienez, berrogei pertsona sar daitezke. Instalazioaz gozatzeko aukera izan duten lehenek diotenez, espazioa mugatua da eta sukaldea txikia da. Agian, haietako askoak Zamudioko txokoetako instalazio handiak ezagutzen dituztelako. Hala ere, Derioko lokalak kokapen pribilegiatua du Ganbeko basoan, horrek gozamenerako eta aisialdirako aukera ematen baitie erabiltzaileei.

BELDURREZKO GAU BAT BAINO GEHIAGO

Halloween, gero eta barneratuago dugun jai zelta

Hilerriak gertu daudenez, erraza da irudimenak eta beldurrik herrian paseatzera ateratzea sorginen gaua iristen denean. Derion oso egun garrantzitsua da Santu

Guztien eguna; izan ere, Euskal Herri osoan hildako gehien "bizi" diren herria da. 'Saria edo ziria' famatua eta mozorroen jaiak dira halloween anglosaxoiaren ohiko jarduerak, baina baita suak egitea, etxe sorginduak bisitatzea, txantxak egitea, beldurrezko istorioak kontatzea eta beldurrezko filmak ikustea ere. Ludotekak ez zuten egun berezi hau



galdu nahi, eta mozorrotzeko eta helduak zein haurrak izutzeko aukera aprobetxatu zuen. Aste osoan zehar hainbat tailer egin ziren, eta oso presente egon ziren kanpoko festa honen ohiko koloreak: laranja, beltza eta morea. Aurten, eguna asteburuan egokitu zen, eta jendeak hala eskatuta, pijamen gaua berreskuratu zen. Beldurrik airean egoteko... eta gozatzeko. ●

CEMENDERIOROCK-EK HERRIA HARTU DU

Bizidunak eta hildakoak esnatuz 7 urtez

Aurten, Santzokak, CemenDerioRock antolatzeaz arduratzen den gazteen elkarteak, herritarrengandik gertuagokoa eta irekiagoa den formatua proposatu zuen. Aurtengoa VII. edizioa zen, eta uste zuten "oraindik batzuek ez dutela CemenDerioRock ezagutzen" eta beharrezkoa zela jendearengana gerturatzea. Egitaraua abendutik azaroaren lehenera aurreratu zuten, eta bertan Trepakalejira nabarmentzen zen. Arratsaldean ateratzen zen KulturBirikatik, musikarekin eta Deustuko Gaztetxeak utzitako barra mugikor batekin. Arratsaldean Kazamy folk-taldearen txanda izan zen, eta kontzertu akustiko bat eman zuten oinezkoen gunean. Ondoren, herri-afari

bat antolatu zen plantxa irekiekin. Antolatzaileek plakak, platerak eta mahai-tresnak jarri zituzten, eta bertaratu zirenek euren janaria eraman zuten bertan erretzeko. Afalostean, ilusionista batek hainbat ezusteko eman zituen magia-ikusketarekin, eta gauerdia izan zen antolatutako kontzertuen doinua aske uzteko unea: Bajo Presión, Undécimo Mandamiento eta Inmolados; azken hori Sugoï tabernako Carlos derioztar erregaitzaren taldea da. Festarako gogoekin geratu eta oraindik ere bizitasunari eusten ziotenek musika eta dantza izan zuten goizaldera arte DJ berezi batekin. Edizio hau finantzatzeko, txapak saldu ziren euro baten truke herriko tabernetan. ●

KIROLDEGIA HOBETZEKO PROPOSAMENA

Instalazioaren erabiltzaileek sinadura-bilketa hasi dute



Kiroldegiaren kudeaketak beti eragin ditu eztabaidak; izan ere, jakina da gaitza dela abonatu guztiak pozik uztea, eta are gehiago ordutegi eta prezioek kontu horretan eragina dutenean. Hori dela eta, Udalaren kirol-instalazioaren erabiltzaile batzuek sinadura-bilketa hasi dute, idazki adeitsu bat babesteko. Hain zuzen ere, bertan adierazten dira azken aldian hartutako neurriekin dituzten ezadostasunak.

Egia da urtez urte parte hartzeko foroetan puntualki zehazten direla egin daitezkeen bariazioak: tasak mantentzea edo igotzea, ordutegi-aldaketak, jasotako edo kanpoan utzitako zerbitzuak eta egiten diren hobekuntza- edo zaharberitze-lanak, gehienak beharrezko dagoelako egindakoak.

Dena den, guztia ez da pozgarria: zerbitzuak hobetu arren, ordaindu beharreko kostu berriak daude, eta Udalaren organismo autonomoa ez da salbuespena.

Kudeaketarekin duten ezadostasuna adierazteko idazkia egin zuten herritarrak ez daude ados aire zabaleko igerilekuak abonuan jasotzearekin; izan ere, uste dute erabilera hori aisialdiari dagokiola, ez kirolari. Bigarren atal batean udako eta jaiegunetako ordutegi-murrizketa aipatzen da. Gainera, Derioko biztanleriaren hazkundea aipatzen da, eskaintza ez murrizteko. Azkenik, tarifak berrikusteko eskatzen da, kostua ez areagotzeko. Horretarako, ikastaroak areagotzea edo hirugarren adinekoek ordaindu beharrekoaren zati bat ordaintzea proposatzen da.

Erantzuteko, jasotako proposamen eta iradokizunak eskertuz, Udalak erabaki horien arrazoiak eman ditu:

Udal-zerbitzuen gainera erabakiak kostuen azterlanak egin ondoren hartzen dira. Kiroldegiak ez dira guztiz autofinantzatzen, osasunari lotutako zerbitzu publikoa dela ulertzen delako; beraz, zergekin mantendu behar da. Azken urteotan Udalak ez ditu kiroldegia bermatzeko ekarpenak murriztu (300.000 € inguru dira), baina krisi globalak ekarri egin du abonuen eta ikastaroen bidez lortzen diren diru-

sarrerak murriztea; beraz, zerbitzua eta oreka mantentzeko bide bakarra da udal-ekarpena areagotzea (derioztar guztiei zergak igotzea eta/edo zerbitzu batzuk murriztea. Bada, azken lerro horretan jardutea erabaki da, ikastaroen kostua 6 € garestitut bermatu egiten delako zerbitzuaren iraunkortasuna, aintzat hartuta azken urteotan prezioari eutsi zaiola.

Oso ondo baloratu da urteko abonuekin batera udako igerilekuena derrigor erosi behar ez izateko iradokizuna; beraz,

2015ean biak batera erosteko edo ez erosteko aukera egongo da, hobariarekin. Azkenik, ordutegi-murrizketa sarbideen azterlan baten ondorio da. Igerileku estalia irekita mantentzeak energiari eta langileei dagokienez eragiten dituen kostuak dira kiroldegiko handienak, eta datu errealek esaten dute murriztutako ordu-tarteetan erabiltzaileen kopurua murriztu egiten dela. Udalak badaki neurri batzuek pertsona batzuk kaltetzen dituztela, baina interes orokorraren alde hartutako erabaki horiek zerbitzua optimizatzen eta bermatzen dute.

ETXEBIZITZAZ HITZ EGITEKO FORO ARRAKASTATSUA

Etorkizuneko Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa, protagonista



Tokiko Agenda 21
Agenda Local 21

Noizean behin, herritarrek parte hartzeko foroek sorpresa ederrak ematen dituzte. Zaindu egiten da hizlarien kalitatea ona izatea, baita azaldutakoa interesgarria eta entzuleentzat erakargarri izatea ere; baina, hainbat pertsona bertaratzea ere funtzionamendu onaren sintoma onena da. Horrela, urrian Eraikinen Ikuskaritza Teknikoaz (EIT) egindako foroak berrogeita hamar bizilagun baino gehiago bildu zituen; zehazki, arloko teknikarien azalpenak entzutera bertaratu ziren. Ikuskaritza horren derrigortasuna araupetzen duen Eusko Jaurlaritzaren dekretuaren indarraldia hasi ondoren eta ikuskaritzen behin betiko hasieradata ezagututa (2018ra arte atzeratu da), zertan datzan sakon azaltzeko eta sor daitezkeen zalantzak argitzeko unea heldu zen.

Helburu gisa nabarmendu zen eraikinak kontserbatzea (segurtasunari, energia-eraginkortasunari eta irisgarritasunari dagokienez) dela lehentasuna. Ibilgailuen Ikuskaritza Teknikoa (IIT) bezalako azterketa edo tasazio-mota da, ahalbidetu egiten duena higiezin bakoitzaren egoera ebaluatzea. Gainera, arma arriskutsua izan daiteke, baldin

Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa 2018ra arte atzeratzen da, baina hori ez da nahitaezko izapidea prestatzen hasteko oztopo. 50 urtetik gorako eraikin guztiek igaro behar dute ikuskaritza, urte horiek betetzen dituzten urtean. Horrek eragindako gastuen zati bat ordaintzeko diru-laguntzak emango dira.



eta higiezin batek ikuskaritza hori gainditzen ez badu edo zegozkion beharrezko obrak egin ez baditu, eta higiezin horri egotz dakioken ezbeharra gertatzen bada.

Laster, telefonoa erabilgarri

EITri buruzko zalantzak argitzen jarraitzeko, zalantza guztiei erantzuteko telefono-linea bat gaituko da. Beitu honen edizioa itean telefonoa ez dago erabilgarri, baina linea laster irekiko eta ezagutaraziko da. Espero da udal-zerbitzu hori baliagarri izatea bizilagunen artean ulertarazteko.

Beste zaharberritze-lan batzuetarako bezala, Eusko Jaurlaritzak ikuskaritza horren gastuen zati bat ordaintzeko diru-laguntzak eskainiko ditu, betiere dagozkion izapideak hasi aurretik eskatzen badira. Hori aintzat hartu behar da laguntza ofizial horien onuradun izatekotan. Indarraldiaren hasieraren luzapenak ahalbidetu egingo du ondoz ondoko derramei aurre egitea, obrak egin behar dituzten komunitateek gastua ordaintzeko zailtasunik izan ez dezaten.

*Ikuskaritzak 2018an
hasiko dira*

DERION HASI ZITUEN BERE BIZIMODUA ETA BERE FUTBOLA

Kaiku kirol erregeari lotuta bizi da, Levante UD taldean



Carlos Martín “Kaiku” 11 urte zituenean hasi zen pilotarekin nabarmentzen, CD Derio taldean. Ordurako ibilia zen Mungiaiko futbito-txapelketetan, “Ignacio Zaballari esker” gogoratu du. Orduz geroztik, baloia izan du bidelagun: “30 urte baino gehiago dira futbolari lotuta”. Gaur egun Levante UDren filialeko ordezkari gisa dihardu. 9 urte eman zituen talde horretan bigarren entrenatzaile, baita filialeko ordezkari gisa ere.. Oraingo egoera txikitatiko motibazioaren emaitza da: “sasoi hartan ez zegoen hainbeste distrakzioirik: playstation, internet. . . Denok geneuzkan baloi bat eta plazak eta landak, belarrarekin, futboleko ibiltzeko” esan du. Eta 20 urte bete zituen arte Derion jokatu zuen. Maila erregionaletik igaro ondoren, bata bestearen atzean zerrendatzen dituen beste hamar taldeetan ibili zen: “Cultural, Bilbao Athletic, Amurrio, Levante, Sporting, Getafe, Levante, Recre, Ciudad de Murcia eta Ponferradina”. Athleticen filialean urtebete besterik ez zuen egin: “bi gol sartu eta 25 partidatan jokatu nuen.



Kaikuk 10 talde ezberdinen kamisetak eraman ditu.

Orduan erabaki zuten ni aintzat ez hartzea eta ulertu egin nuen. Futbola halakoa da” onartu du. 1997an hasi zen Lehenengo Mailan: “Sporting taldearekin Composen aurka izan zen, San Lázaron”. Gijóngo taldean zegoenean agertu zuen Athleticen beraganako interesa, “baina ez ninduten aske utzi”. Aitortu egiten du Bilboko taldean jokatu nahi zuela, baina “ezinezkoa izan zen” esan du etsita.

Sasoi onak eta txarrak

Bere esperientzia luzeak ahalbidetu egiten dio Bigarren eta Lehenengo mailen arteko ezberdintasunak markatzea. Bigarren Mailan, jokoa (fisikoa zein teknikoa) berdinduago dago. Lehenengoan, aldiz, jokalarien maila azpimarratu du: “hor erabakigarri izan behar duzu zure lekuan”, eta ez baduzu betetzen, zaleek zigortu egiten zaituzte. Horixe gertatu zen Gijónen: “Lehenengo Mailan denboraldi ezin txarragoa egin genuen, eta zaleek (orduan bakarrik) niri egotzi zidaten. Ez zen urte ona izan” onartu du. Baina, oso sasoi

onak ere bizi izan ditu, batez ere Valentzian: “hori izan zen eta da nire talde onena, alderdi guztietan. Levanten kontuak beti atera izan zaizkit ondo eta zelaitik kanpo ere maitatua sentitu naiz”. Gainera, Manérekin (bere entrenatzaile onena) kirol-adiskide-harremana



izan zuen. Bestalde, golak nabarmentzeko, Carlosek bi aipatu ditu: Lehenengo Mailako lehenengoa, Asturiasko derby batean eta aurkariaren zelaian sartutakoa. “Oviedon nire golarekin hartu genuen aurrea, irudika ezazu zer nolako eromena zelaian” esan du hunkituta. Bigarrena Sorian izan zen, Los Pajaritos zelaian: “nire lehenengo semeari eskaini nion, baina gazi-gozoa izan zen; izan ere, ez genuen irabazi eta kategoria galdu genuen”.

Derio, futbolarien jatorri

Kaikuk, Moska, Aiarza, Ander eta Gazka Garitanorekin batera, etena ezarri du Derioko futbolaren historian. Gaur egun Eibar taldean entrenatzaile dabilenak meritu handia du, eta Kaikuk aitortu egiten dio: “harro nago gure herriko pertsona batek (gainera, laguna da) arrakasta izateaz”. Promesa berriei (agertzen

Valentzia



Turiaren hiria argiaren lurraldea da. Horrela pintatu zuen Joaquín Sorollak Levanteko kostaldea, eta bertako hiriburua bereziki maite du gure bizilagunak.

“Bikaina da bizitzeko; nire ustez, osoena da” definitu eta arrazoitu du. Eta ez da gutxiagorako, berari bezala klima beroa eta kostaldea gustatzen bazaizkigu.

Izena: Carlos Martín Arceo, “Kaiku”

Adina: 42 urte

Alde egin zuen urtea: 1992

Bizitokia gaur egun: Valentzia.

Lanbidea: idazkari teknikoa eta delegatua.

Futbola. Hitz hori datorkigu burura Kaiku aipatzean. Derion jokatu zuen eta bertan kategoria guztietatik igaro ondoren, Lehenengo eta Bigarren Mailako hainbat zelaian aritu zen. Hamar taldetako hamaikakoetan izan zen titular, baina baten bat hautatu behar badu, Levante UD hautatzen du. Bertan ezin hobeto atera zaizkio kontuak, bai futbol-zelaian, bai kanpoan. Futbolari derioztar handien aroko kide da eta jokalaria berriei dibertitzeko gomendatzen die, “futbola entrenimendua delako, ez eginbeharra”.

jarraitzea espero du) dibertitzea gomendatzen die: “garrantzitsuena ikasketak dira, futbola entrenimendua da, ez eginbeharra”. Bere erreleboa gogoan hartu gabe, Kaiku Levante UDri eta Valentziari lotuta bizi da. Hiri hori maite du, baina Derio darama gogoan. Hemen hasi zuen goranzko ibilbidea, lagunak egin zituen eta hazi egin zen pertsona zein jokalaria legez. Esan du ez duela hitzik bere herri Derioren inguruan sentitzen duen gutzia adierazteko. “Txikia da lurraldez, baina era berean oso handia da, bertako bizilagunengatik: familia handia ginen eta sentsazio hori ez dut berriz ere bizi izan”.

Valentzian Arte eta Zientzien Hiria bisitatzea gomendatu digu, “masclatá baten musika eta usaina” sentitzea, ahal dela Falletan eta udaletxearen plazan: une hori egokia da, kamara eskutan, Fallen aztarna ke legez betikotzeko. Ondoren, kresalak ordezka dezala bolbora errearen usaina,

hiritik bertatik irten gabe, bertako edozein hondartzatan zehar. Valentziak bi hondartza ditu hirian: Las Arenas eta Malvarrosa mitikoa, biak ere harea fina eta urreztatua dutenak. Horietako edozeinetan gozatu ahal izango dugu giro lasaia txosna batean, paella ezin gozoagoa lagun.

LITERATURA UDAZKEN HANDIA

Ekitaldiz betetako urriak bide emango die ipuinei azaroan

kasturtea hasten denean, Kultur Birikako erritmoa frenetiko da, eta urria adibide argia izan da. Lau hormon artean, tailer, erakusketa, liburu-aurkezpen, ipuin-kontaketa eta kultura-jarduera amaigabeez gozatu ahal izango dugu, eta hemendik aurrera ere hala izango da. Hilabetea gogotsu hasi zen Fernando Pedro Pérezen Derioko azken andra baserritarrak liburuaren aurkezpenarekin, eta emakume horiei buruzko erakusketa ikusgai egon zen hilaren 29ra arte.

Fernando Zamora poetak Euzkadi aretoan aurkeztu zuen bere liburu. Bere literatura-ibilbidean idatzitako poemez osatua dago obra bikaina, eta Sonetos de mi vida izena du. Ekitaldian, 60 lagun bildu ziren, eta idazlearen bidelagun bihurtu ziren honezkerok bigarren edizioa duen liburu horrekin egindako bidaia berezian.

Jon Arretxe idazle euskalduna ere Kultur Birikan egon zen, Toure Ikertzailea azken lana aurkezteko. Basauriarrak azalpen dinamiko eta interaktiboa eman zuen, eta bere zenbait liburu bertaratu artean zozketatu ziren. Azkenik, hilaren 24a Liburutegian Eguna izan zen. Egun berezia izan zen, eta Joserra Bajok, gure liburuzainak, gozokiekin saritu zituen liburu bat hartuta irakurtzeari ekin zioten gazteak.

Ipuinak azaroan

Pello Añorga, Gipuzkoako ipuin-kontalari ospetsua, Kultur



Fernando Zamorak Sonetos de mi vida aurkeztu zuen.

Birikara etorriko da azaroaren 13an, arratsaldeko bost eta erdietan. Ekitaldia 5 eta 9 urte bitarteko gazteei zuzenduta egongo da. Euskaraz egingo dute, eta erabateko protagonistak izango dira, gurasoek ez baitiete aretora lagunduko.

Amaitzeko, Txorierriko Mankomunitateak euskarazko ipuinen urteroko lehiaketa antolatu du, eta aurtengoa 17. edizioa da jada. Bost kategorია egongo dira egileen adinaren arabera, eta azaroaren 28ra arte aurkeztu ahal izango dira lanak. Obretako gaia libreza izango da, eta euskara hutsean idatzi beharko dira. Egile bakoitzak lan bat aurkeztu ahal izango du, laur orrialdekoa, gehienez ere. Oinarriak Mankomunitatearen web

orrian bertan edo banatutako liburuxka eta karteletan kontsulta daitezke.



Pello Añorga ipuin-kontalariak hilaren 13an egingo digu bisita

GAIZKAK ARRAKASTA BETEA LORTU DU LFPREN GALAN

Liga Adelanteko entrenatzaile onenaren saria eman diote

Gaizka Garitano derioztarrak, SD Eibar-ko entrenatzaileak, "Liga Adelante 2013-14 denboraldiko entrenatzaile onena"-ren saria jaso du. Gala telebistaz eman zen, Hollywoodeko estiloari jarraikiz, eta bertan Simeonek eman zion saria, Santiago Segurak finalisten zerrenda irakurri ondoren: Quique Setién eta Fernando Vázquez ere bazeuden zerrenda horretan. Gaizkaren zeregina (ondoz ondoko bi iguera lortu ditu) eta armagintza-herriko taldea ere saritu ziren, Campeones de Liga eta Juego Limpio garaikurrekin. Sari-



Ekitaldia telebistaz eman zen, prime timen.

banaketan, Garitanok azaldu zuen sari hori "talde teknikoaren izenean" jasotzen duela, "beraiek gabe ezinezkoa izango zatekeen" eta. Halaber, eskerrak eman zizkien bere jokalariei: "oso harro nago zuen entrenatzaile izateaz". Sariak estatuko futbolaren elitean bermatu du, are gehiago denboraldiaren hasiera honetan aurreikuspen onenak gaidintzen ari denean. ●

EZ DADILA INOR FALTA EGUTEGIAN



Gure Señeak-ek irribarrez betetako almanaka solidarioa kaleratu du

Azken bi urteotan inguruan jaio diren txiki guztiak bihurtuko dira Gure Señeak-en egutegiko protagonista. Berriz ere, orain dela bi urte egin zuten bezala, bat egin nahi duten gure txiki guztien (kasu batzuetan, senideekin batera) irudiak eskaintzen dira. Oinarriak eskolan, osasun-zentroan (emaginaren laguntzari esker) edo Kultur Birikan aurki daitezke. Solidaritatea oinarritzko zutabe bihurtzen da, berriz ere, gaixotasun arraroak eta ezintasun-egoera bereziak dituzten haurren familien aldeko elkarteak bizirik mantentzeko. Egutegiaren balioa sinbolikoa eta merkea izango da, eta ezinbesteko elementua izango da etxe guztietan. Hil bakoitzean irribarreen leiho



bat irekiko da, euren urtebetetzeak ospatzen dituzten pertsonatxoek hainbat argazkirekin. Abenduaren hiruko jendaurreko aurkezpenean pertsonaia ezagunen bat agertzea espero da, aurrekoan Urzaizekin eta Adurizekin egin zen bezala. ●